

22/11

irizpena

FAMILIA POLITIKEN ESPARRUAN FAMILIA
ERRENTAREN ESTANDARIZATZE SISTEMA
arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2011ko abenduaren 23an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



**CES
EGAB**

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©**Argitalpena:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao, Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: Cuatrobarras

Inprenta: Imprenta Gestingraf

Lege Gordailua: BI-47-2012



*i*rizpenda 22/11

I. SARRERA

2011ko azaroaren 28an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren idatzi bat sartu zen. Bertan, *“Familia politiken esparruan familia errentaren estandarizatze sistema arautzen duen Dekretu Proiektua”*ri buruzko argibideak eskatu ziren, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legeko 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Galdetu zaigun lege ekimenaren helburua familia politiken esparruan ezarritako laguntza neurriei aplikatu beharreko familia errenta estandarizatze sistema arautzea da, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen agindua eta martxoaren 8ko 36/2011 ez-legezko Proposamenak dakarren legebiltzarraren agindua betez.

Berehala bidali zitzairen agiriaren kopia Batzordearen osoko bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritzia igor zitzaten eta haiek dagokion lan batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu arautegian xedatutakoaren arabera. 2011ko abenduaren 16an Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen, eta hartutako erabakietan oinarrituta, Irizpen Proiektu hau egin da, Batzordearen abenduaren 23ko osoko bilkurari igortzeko. Han, aho batez onartu da.

II. EDUKIA

*“Familia politiken esparruan familia errentaren estandarizatze sistema arautzen duen Dekretu Proiektua”*ren testuak hitzaurrea, 6 artikulua eta amaierako hiru xedapen dauzka. Laburbilduta, haren edukia honakoa da.

Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea, familien eta haien kideen ongizatea eta bizi kalitatea hobetzera zuzendutako erabateko familia politikarako esparrua eta oinarriak ezartzeko eta,

xede nagusi horrekin, multzo koherentea osatuz, autonomia esparruan familien alde indarrean dauden neurri guztiak antolatzeko xedez onartu zen.

Familia errealitateak oso ugariak direla oinarri hartuta, lege testuak familia errenta estandarizatzeko sistemak ezarri beharra aurreikusten du, familia mota eta egoerei tratu zuzenagoa eman ahal izateko. Sistema horiek laguntza ekonomikoei edo familiei laguntzeko zerbitzuei aplikatuko zaizkie, eta familia unitatearen errentaren maila ekonomikoa, prestazioa eskuratzeko baldintza edo prestazioaren zenbatekoa edo zerbitzua ordaintzeko parte hartze ekonomikoaren zenbatekoa erabakitzeko irizpide erabiliko dira.

22/11j

Familia errentak estandarizatzeko sistema horiek baliokidetasun sistemak dira, eta gai dira errenta, familia unitatearen kide kopuruaren arabera ez ezik, unitate horren osaketaren arabera ere haztatzeko, iritzita sarrera maila berberak ez diela ahalmen ekonomiko berbera ematen, erosahalmenari eta bizi kalitateari dagokienez, zenbait osaketa duten familia unitateei.

Familia errenta estandarizatzeko arauketa da Dekretu honen xedea, lege testuko amaierako bigarren xedapenak dakarren agindua eta 36/2011 ez-legezko Proposamenak –han, “*Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, gehienez sei hileko epean, araudiaren garapenaren bidez, familia errenta estandarizatua arautzeko*”-dakarren legebiltzarraren agindua ere betez.

Halaber, eta estandarizatzeko sistema horren arauketaren ondorioz, Dekretuak, azken xedapenetan, lana eta familia bateratzeko laguntzei buruzko ekainaren 177/2010 Dekretua seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzen dituen abenduaren 19ko 255/2006 Dekretua aldatzen ditu, sistema horren arauketak eragiten dien artikuluetan.

Dekretu horren xedapenetan xedatzen da, lehenbizi, helburua familia politiken esparruan ezarritako laguntza edo zerbitzuei aplikatu

beharreko familia errentaren estandarizatze sistema arautzea dela, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeko 6. artikulua garatuz eta bertako amaierako bigarren xedapenak dakarren agindua betez. Haiek aipatu legeko II. Tituluko I. Kapituluaren eta 12. artikuluko a), b) eta d) letretan jasotako laguntzei dagozkie.

Arauaren eremuan izango dira familia politiken esparruan araututako laguntzak edo zerbitzuak, haien xedeak honakoak direla: jaiotzari, adopzioari, adopzio aurreko familia abegiari eta familia unitatea osatzen dute seme-alaben mantenuari lotutako gastuei aurre egiten laguntzea eta lana eta familia bateratzea erraztea.

Estandarizatze sistema aplikagarria izango da laguntza edo zerbitzu horiek eskuratzea errenta familiaren mailaren arabera denean eta hark laguntzen zenbatekoa edo familia erabiltzaileak zerbitzuaren prezioa ordaintzeko duen parte hartzearen zenbatekoa ezartzeari eragiten dionean, arautzen dituzten legeen arabera.

Jarraian, dekretuak familia errenta estandarizatua ezartzeko metodoa finkatzen du. Horretarako, familia unitatearen osaketa (4. artikuluan araututakoaren arabera), haren errenta maila (5. artikulua) eta familia unitateari dagokion baliokidetasun koefizientea (6. artikuluan xedatutakoaren arabera) hartzen dira aintzat.

Hasteko, familia unitatetzat jotzen da eskatzaileak, haren ezkontideak, baliogabetasunik, banantzerik edo dibortziorik ez badago, edo izatezko bikote berarekin bizi ohi den pertsona, behar bezala frogatuta badago, eta haren zaintzapean jarrita dauden seme-alabek, bizileku berean bizi badira, osatzen dutena. Jarraian, aita edo amatzat eta seme-alabatzat zer ulertzen den azaltzen da.

Ondoren, esaten da errenta maila ezartzeko, laguntza edo zerbitzua eskatzen den ekitaldiaren aurreko ekitaldi bietako zergaldiari dagozkion zerga oinarri orokorra eta familia unitatea osatzen duten aita eta amaren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aurrezkiaren zerga oinarria batzen direla.

Halaber, familia unitatearen baliokidetasun koefizientea familia unitatearen kide bakoitzari honako koefizienteetatik dagokiona aplikatuz ateratako batuketa izango da:

- a) Guraso biko familia unitate bat osatzen duen eskatzailea: 1,00.
- b) Ezkontidea edo izatezko bikotea: 0,5.
- c) Ezkontide edo izatezko bikoterik gabeko eskatzailea: 1,3.
- d) Familia unitatea osatzen duen seme-alaba bakoitza: 0,3.
- e) Familia unitatea osatu eta %33 edo gehiagoko onartutako ezgaitasuna duen seme-alaba bakoitza: 0,3 aurreko koefizienteari batzeko.

22/11*i*

Familia errenta estandarizatzeko metodo berriaren ondorioz, lehenbizi, familia eta lana bateratzeko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua aldatu da, eta 40. artikulua berridatzi da arau berriaren aipua sartzeko.

Halaber, seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzen dituen abenduaren 19ko 255/2006 Dekretua aldatu da, 7, 13, 17, 18, 20 eta 23. artikuluetan, eta, bestalde, familia unitatearen baliokidetasun koefizientearen kalkulari buruzko 23.bis artikulua berria sortu da, orain ateratako dekretuarekin bat egiteko.

III. GOGOETA OROKORRAK

Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen xedea erabateko familia politika egiteko esparrua eta horren oinarriak ezartzea da. Politika horrek familien eta familiako kideen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzera bideratuta egon behar du. Familiei babesa, arreta eta laguntza eman nahi dizkie, gure autonomia esparruan indarrean dauden familien aldeko neurriak ordenatuz eta laguntza ekimen berriak arautuz.

6. artikulua xedatzen duenez, zenbait laguntza edo zerbitzu eskuratzea edo prestazioaren zenbatekoa edo zerbitzuaren

ordainketa ezartzea errenta mailaren araberakoak direnean, familia errenta erabiliko da, eta haren tamainaren eta osaketaren arabera estandarizatuko da, familia mota eta egoera guztiei tratu zuzenagoa emateko xedez.

Egokia deritzogu dekretu proiektu hau izapidetzeari; izan ere, haren helburua, aipatu xedapena betez, familia errentaren estandarizatze sistema zehatza ezartzea da, familia mota eta egoera guztiei tratu zuzenagoa emateko, laguntza ekonomikoak edo familiei laguntzeko zerbitzuak eskuratzeko garaian.

Gure iritziz ere, familia errentak estandarizatzeko sistema horrek, familia unitatearen kide kopuruaren arabera ez ezik, unitate horren osaketaren arabera ere haztatu behar ditu, iritzita sarrera maila berberak ez diela ahalmen ekonomiko berbera ematen, erosahalmenari eta bizi kalitateari dagokienez, zenbait osaketa duten familia unitateei.

22/11 

Hala ere, adierazi nahi dugu, gure ikuspuntutik, dekretu proiektuaren hitzaurreak aipatzen duen bezala "*familia mota eta egoera guztientzat tratu zuzenagoa*" bilatzeak talka egiten du 4. artikulua jasotzen duen familia unitatearen definizioarekin; izan ere, ez dira jaso egun zabaldua dauden errealitateak, hala nola eskatzaileen eta haren ezkontide edo izatezko bikotearen asabak, haiekin bizi direnean, are gehiago biztanleria zahartzen ari denean eta ohikoa denean adineko pertsonak ere familia unitatea osatzea.

Egoera horiek aintzat hartu behar lirateke (eta horrela proposatu dugu gogoeta zehatzetan), adineko horien egoera ekonomikoa aintzat hartuta, kasu batzuetan egoera ekonomiko erosoak izango dutelako, baina beste batzuetan, aldiz, eskatzailearen mendeko pertsonak izango direlako. Izan ere, uste dugu zaila dela errentak estandarizatzeko formula aurkitzea, familia unitatearen kideetako bat, bere aldetik, "estandarra" ez bada.

Bestalde, azpimarratu nahi dugu iritzia eskatu zaigun Dekretuak darabilen hizkuntza ez sexista.

IV. GOGOETA ZEHATZAK

2 artikulua. Eremua

Artikulu horretako 1. idatz-zatiak honela dio:

“1. Dekretu hau familia politiken esparruan honako xedeekin ezarritako laguntza edo zerbitzuei aplikatuko zaie:

- a) Jaiotzari, adopzioari, adopzio aurreko familia abegiari eta familia unitatea osatzen dute seme-alaben mantenuari lotutako gastuei aurre egiten laguntzea.*
- b) Lana eta familia bateratzen laguntzea”.*

Adierazi behar dugu, lehenbizi, kontuan izan behar litzatekeela, a) idatz-zatian, adopzio aurrekoa bezala, familia abegi iraunkorra ere.

Halaber, eta beste batzuetan adierazitakoaren ildo beretik, iradoki nahi dugu b) idatz-zatian “lana eta familia bateratzen” esapiderearen ordean “lana, familia eta norberaren bizitza bateratzen” jartzea, lehenengoari osagabea deritzogulako.

4.1. artikulua. Familia unitatea

Gogoeta orokorretan esandakoaren ildo beretik, gomendatu nahi dugu artikulu honetako 1. idatz-zatian, non familia unitatetzat zer ulertzen den definitzen baita, d) puntua eranstea:

“d) Eskatzaileen eta haren ezkontide edo izatezko bikotearen asabak, haiekin bizileku berean bizi direnean, behar bezala frogatzen bada”.

Amaierako bigarren xedapena, 5. idatz-zatia

Xedapen horrek idatz zati bat erantsi dio seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzen duen abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuko 20.2 artikuluari:

“m) laguntza eragin ez duten seme-alabek %33 edo gehiagoko ezgaitasuna onartuta izanez gero, erakunde eskudunak eman eta indarrean dagoen minusbaliotasun gradua onartzeko ziurtagiriaren fotokopia”.

Gogorarazi behar diogu legegileari, ezgaitasun gradua onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 4ko 1856/2009 Errege Dekretuaren arabera -zeinen bidez abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua aldatzen baita-, "ezgaitasun gradua" esan behar da, eta ez "minusbaliotasun gradua", horrela agintze baitu arau horrek, berariaz.

22/11 

V. ONDORIOAK

EGABek egokitzen du "*Familia politiken esparruan familia errentaren estandarizatzeko sistema arautzen duen Dekretu Proiektua*"ren izapidetzea, erakunde aholku-emaile honek egindako gogoetekin.

Bilbon, 2011ko abenduaren 23an

OE Presidentea
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos

